


Bideak IREKIZ



aurrenekoak bideak irekiz

Aurrenekoa izango da berriz Azpeitia euskarari bide berriak irekitzen. Eta herriko enpresa guzti-guztiak beharrezkoak dira zeregin horretan.

Azpeitia izan zen Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia martxan jarri zuen lehenbiziko herria. Euskara patronatua duen herri bakarretakoa da Azpeitia. Euskararen inguruan lan egiten dutenek baliatzen duten erabili.com webgunearen sortzaile eta arduraduna da gainera. Hiru euskaltzain izan dituen herri bakarra da Azpeitia...

Eta orain, bide berriak irekiko ditu Azpeitiak, enpresetan euskara modu berritzaile batean garatzeko. Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Euskaltzaindiaren eta Azpeitiko Udalaren babesarekin. Euskal Herria osoan aitzindaria izango den ekarpena eginez.

elegune: ate berri bat zabalik

Azpeitiko Udalak, herriko Euskara Patronatuaren bitartez, eLEGUNE aurkeztu nahi dizu: enpresei hizkuntzen gestioan laguntzeko gune tekniko.

Zerbitzu profesionala eta integrala eskaintzen du, eta Azpeitiko enpresei euskarari bide egiteko laguntza eta baliabideak erraztea da bere eginkizuna.

Aurrerantzean zure enpresak ate berri bat dauka zabalik.

enpresaren etorkizunari laguntzeko

Eleaniztuna da enpresaren oraina eta geroa. Enpresek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituzte beren eguneroko lan-harremanetan. Bai enpresa barruan, langileen artean; eta bai kanpora begira, bezeroekin, hornitzaileekin eta erakunde publikoekin.

Horregatik, enpresa guztiak behar dute hizkuntza-gestio egoki bat. Enpresan komunikazioa hobetzeko, enpresaren interesetan aurrera egiteko.

Hizkuntzen gestio on batek gizartera hurbiltzen du enpresa. Enpresaren irudia hobetzen du. Etorkizunerako prestatzen du enpresa.

enpresa bakoitzak bere plana

Enpresa bakoitzak bere izaera, egoera eta helburu propioak ditu. Horregatik da horrelakoa eLEGUNEren zerbitzua:

Malgua

Enpresa bakoitzak erabakitzen ditu bere helburuak: inplantazio maila, erritmoa... Erabiltzen duen hizkuntza bakoitza non, noiz, nola eta zertarako erabili enpresak berak erabakiko du.

Doakoa

Azpeitiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza egiten dira gastuen kargu.

Profesionala

Enpresetan hizkuntzen gestioan arituak eta adituak diren tekniko profesionalak osatzen dute eLEGUNE: hizkuntz aholkularitzan espezializatutako Emun enpresako teknikariek eta Azpeitiko Euskara Patronatuko arduradunek.

Eta erraza

eLEGUNEk hartzen du bere gain lanik gehiena, enpresak ez dezan lan zama gehigarririk izan. Zerbitzu integrala eta iraunkorra eskaintzen ditu. Eta gertu dago, bertako enpresei laguntzeko.

Tel.: 9 4 3 8 1 4 5 1 8

elegune@erabili.com

www.erabili.com/elegune

planik egokiena

Zure enpresak planik egokiena eduki dezan, hauek dira eman beharreko urratsak:

1. eLEGUNEk enpresaren diagnostiko zehatza egiten du.
2. eLEGUNEk helburu konkretu batzuk proposatzen dizkio enpresari.
3. Zure enpresak komeni zaizkion helburuak eta erritmoak finkatzen ditu.
4. eLEGUNE helburu horiek betetzeko lanean jartzen da enpresarentzat.

zure enpresaren unea da

Iritsi da unea. Aukera ezin hobea du orain zure enpresak. Zure enpresari ez ezik, euskarari ere bide egiteko.

Gero Euskal Herri osoko udalerrri askorentzat eredugarria izango den adibidea emango du zure laguntzarekin Azpeitiak.

Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Euskaltzaindiaren eta Azpeitiko Udalaren eskutik, diploma bat eta esker ona jasoko ditu publikoki zure enpresak egindako ahaleginagatik.

Zure enpresak merezi du, eta eskura gaituzu.



Azpeitiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



ABRIENDO caminos



enpresen
hizkuntza-gestiorako
gune teknikoa
centro de optimización
de la gestión lingüística
en las empresas

LOS PRIMEROS ABRIENDO caminos

Azpeitia volverá a ser la primera abriendo nuevos caminos al euskera. Y para ello, serán necesarias todas y cada una de las empresas asentadas en nuestro término municipal.

Fue Azpeitia el primer municipio en poner en marcha el Plan General de Promoción del Uso del Euskera del Gobierno Vasco. Es uno de los pocos pueblos que cuentan con un Patronato de Euskera. Es además, promotor y responsable de la web de referencia para todos los que trabajan alrededor del euskera en el País Vasco: erabili.com. Es el único municipio que ha tenido tres miembros de Euskaltzaindia...

Y ahora, Azpeitia, se dispone a abrir nuevos caminos para que el euskera pueda desarrollarse en las empresas. Una aportación que va resultar pionera en el País Vasco. Con el amparo y el apoyo del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, Euskaltzaindia y el Ayuntamiento de Azpeitia.

eLEGUNE: una nueva puerta abierta

El Ayuntamiento de Azpeitia, mediante el Patronato de Euskera municipal, quiere presentarte eLEGUNE: una oficina técnica para ayudar a las empresas en la gestión lingüística.

Ofrece un servicio profesional e integral, y su función es la de facilitar ayuda y recursos a las empresas de Azpeitia para que abran caminos al euskera.

Desde hoy, tu empresa tiene una nueva puerta abierta.

para ayudar AL futuro de la empresa

El presente y el futuro de la empresa es plurilingüe. Las empresas utilizan más de un idioma en sus relaciones laborales diarias. Tanto en el seno de la propia organización, entre los trabajadores, como hacia el exterior, con clientes, proveedores e instituciones.

Por ello, todas las empresas necesitan una gestión lingüística eficaz. Para mejorar la comunicación. Para avanzar en los intereses de la empresa.

Una buena gestión de los idiomas acerca la empresa a la sociedad. Mejora la imagen de la compañía. La prepara para el futuro.

cada empresa, su propio plan

Cada empresa tiene su forma de ser, su situación única, sus objetivos. Por eso el servicio de eLEGUNE es:

Flexible

Cada empresa decide sus objetivos: el nivel de implantación, el ritmo... Es cada empresa la que establece dónde, cuándo, cómo y para qué utilizar cada uno de sus idiomas.

Gratis

El Ayuntamiento de Azpeitia la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco se hacen cargo de todos los gastos.

Profesional

eLEGUNE está formada por técnicos expertos en la gestión lingüística de las empresas: la componen técnicos de Emun, empresa especializada en este ámbito, y responsables del Patronato de Euskera de Azpeitia.

Y muy fácil

Es eLEGUNE la que lleva a cabo la labor, para evitar que la empresa cargue con trabajo añadido. Ofrece un servicio integral y permanente. Y está cerca.

Tel.: 943 814518

elegune@erabili.com

www.erabili.com/elegune

el mejor plan

Estos son los pasos a dar para que tu empresa tenga el mejor plan:

1. eLEGUNE realiza un diagnóstico detallado de la empresa.
2. eLEGUNE propone objetivos concretos a la empresa.
3. Tu empresa fija los objetivos y ritmos que estima convenientes.
4. eLEGUNE se pone a trabajar para que tu empresa logre esos objetivos.

es el momento de tu empresa

Ha llegado el momento. Tu empresa tiene ahora una ocasión inmejorable. Para ayudar a tu empresa y al euskera a abrirse caminos.

Contigo Azpeitia resultará un ejemplo a seguir para todo el País Vasco.

De la mano del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa, de la Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia y el Ayuntamiento de Azpeitia, tu empresa recibirá un diploma y un agradecimiento sincero públicamente por el esfuerzo realizado.

Tu empresa se lo merece. Y nos tienes a mano.



Azpeitiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE